## 2019RA LUZATUTAKO 2018KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 02 DIPUTATU NAGUSIA

**Programa:** 93 GARAPENERAKO LANKIDETZA

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2018 PRORROGADO PARA 2019

**Departamento:** 02 DIPUTADO GENERAL

**Programa:** 93 COOPERACIÓN AL DESARROLLO

## SAILAREN MEMORIA

## MEMORIA DEL DEPARTAMENTO

### I. MEMORIA

Honako ildo hauek biltzen zituen 2019ko ekitaldian zehar garatu beharreko aurrekontu programaren helburuak:

- Nazio Batuen Agenda 2030 berria Arabako lurraldean aplikatzeko ibilbide orria taxutzea eta pixkanaka-pixkanaka ezartzea, eta berdintasun printzipioa bertan jasotzea, bai eta garapen jasangarrirako 5. helburua ere, generoen arteko berdintasunari eta emakume eta neska guztien ahalduntzeari buruzkoa.
- Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzako proiektuetarako dirulaguntzen deialdia mailaka egokitzea (H)abian Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren Estrategiara, genero ikuspegia irizpide eta baldintza bezala sartzen jarraituta.
- Lurraldean kokatutako erakundeekin batera hasitako parte hartze eta elkarrizketa prozesua sendotu eta bizkortzea.
- Lankidetzaren arloko foru politikan parte hartzen duten eragileak, baliabideak eta erakundeak berrikustea
- Garapenerako politiken koherentzia (GPK) hobetzen jarraitzea, berdintasun printzipioa erantsita.
- Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzako, garapenaren lakidetzarako eta ekintza humanitarioaren arloko proiektuei laguntzea eta haietan genero ikuspegia eranstea.
- Lankidetzarako eta/edo sentsibilizaziorako proiektuen jarraipena eta ebaluazioa egitea.

### I. MEMORIA

El objetivo del Programa Presupuestario a desarrollar a lo largo del ejercicio 2019 comprendía las siguientes líneas:

- Implementación paulatina de la hoja de ruta para la aplicación de la nueva Agenda 2030 de las Naciones Unidas en el territorio alavés, incorporando el principio de igualdad y el ODS Nº5 relativo a la igualdad entre los géneros y el empoderamiento de todas las mujeres y las niñas.
- Adecuación progresiva de la Convocatoria de subvenciones para el desarrollo de proyectos de Educación para la Transformación Social (EpTS) a (H)abian, la estrategia de Educación para la Trasformación Social, manteniendo la inclusión de la perspectiva de género como criterio y como requisito.
- Consolidar y dinamizar el proceso de participación y diálogo emprendido con las organizaciones implantadas en el territorio.
- Revisión de los agentes, instrumentos y organizaciones implicadas en la política foral de cooperación
- Continuar trabajando la Coherencia de Políticas para el Desarrollo (CPD) como un proceso de mejora, incorporando el principio de igualdad.
- Apoyo a proyectos de EpTS, cooperación al desarrollo y acción humanitaria, incorporando en los mismos la perspectiva de género.
- Seguimiento y evaluación de los proyectos de cooperación y/o sensibilización.

### II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN GAUZATZE-MAILA

2019ko ekitaldian zehar, honako jarduketa hauek egin dira garapenerako lankidetzaren, Gizarte

### II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS

Durante el ejercicio 2019 las actuaciones realizadas en materia de cooperación al desarrollo, Educación para

# 2019RA LUZATUTAKO 2018KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 02 DIPUTATU NAGUSIA

**Programa:** 93 GARAPENERAKO LANKIDETZA

Eraldaketarako Hezkuntzaren eta ekintza humanitarioaren arloan:

- **Nazio Batuen Agenda 2030 berria Arabako lurraldean aplikatzeko ibilbide orria taxutzea eta pixkanaka-pixkanaka ezartzea, eta berdintasun printzipioa bertan jasotzea, bai eta garapen jasangarrirako 5. helburua ere, generoen arteko berdintasunari eta emakume eta neska guztien ahalduntzeari buruzkoa.**

  2017ko irailean, Arabako Foru Aldundiak jakitera eman zuen Garapen Jasangarrirako 2030 Agendarekiko bere atxikimendua. Nazio Batuen Batzar Orokorrak 2015eko irailean onetsitako agenda horrek pertsonen, planetaren eta oparotasunaren aldeko ekintza plan bat artikulatzen du, eta nahi du bake unibertsala eta justiziara iristeko eskubidea indartzea.

  Arabako Foru Aldundia, Arabako lurraldearen etorkizunaz eta garapenaz arduratzen den administrazioa den aldetik, Agenda 2030 beste eragile eta administrazio batzuekin batera abiarazteko orduan parte hartzen duen subjektuetariko bat da.

  2019an zehar, Garapen Jasangarriaren aldeko Arabako Ituna finkatzen jarraitu da, zeina onartu baitzen Arabako hainbat eremutako eragileen konpromisoa oinarri.

  Horiek horrela, Garapen Jasangarriaren aldeko Arabako Ituneko elkarrizketa hauek egin dira:

  * Nola eta zergatik txertatu GJHen ikuspuntua nire erakundean?

  * Garapen jasangarrirako estrategia baten alde egiteak dakarren balio positiboa.

  * Erakundeek 2030 Agendaren komunikatzaile eta dibulgaitzaile izateko duten eginkizuna.

  * Hemen eta munduan. Beste eragile eta lurralde batzuekin itunak egitearen garrantzia.

· **Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzako proiektuetarako dirulaguntzen deialdia mailaka egokitzea (H)abian Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren Estrategiara, genero ikuspegia**

# LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2018 PRORROGADO PARA 2019

**Departamento:** 02 DIPUTADO GENERAL

**Programa:** 93 COOPERACIÓN AL DESARROLLO

la Transformación Social (EpTS) y acción humanitaria han sido las siguientes:

- **Implementación paulatina de la hoja de ruta para la aplicación de la nueva Agenda 2030 de las Naciones Unidas en el territorio alavés, incorporando el principio de igualdad y el ODS Nº5 relativo a la igualdad entre los géneros y el empoderamiento de todas las mujeres y las niñas.**

  En septiembre de 2017, la Diputación Foral de Álava hizo pública su adhesión a la Agenda 2030 para el Desarrollo Sostenible. Esta Agenda aprobada por la Asamblea General de Naciones Unidas en septiembre de 2015, articula un plan de acción a favor de las personas, el planeta y la prosperidad y aspira a fortalecer la paz y el derecho universal de acceso a la justicia.

  La Diputación Foral de Álava, como administración responsable del futuro y del desarrollo del territorio alavés, se reconoce como uno de los sujetos involucrados en la implementación de la Agenda 2030, en coordinación con otros agentes y otras administraciones.

  A lo largo del año 2019 se ha continuado con el fortalecimiento de la Alianza Alavesa por el Desarrollo Sostenible, la cual fue asumida con el compromiso de agentes de diversos ámbitos del Territorio alavés.

  Así, se han celebrado los siguientes Diálogos de la Alianza alavesa por el desarrollo sostenible:

  * ¿Cómo y por qué incorporar la perspectiva de los ODS en mi entidad u organización?

  * El valor positivo de apostar por una estrategia de desarrollo sostenible.

  * El papel de las Entidades como Agentes Comunicadores y Divulgadores de la Agenda 2030

  * Aquí y en el mundo. La importancia de tejer alianzas con otros agentes y territorios.

- **Adecuación progresiva de la Convocatoria de subvenciones para el desarrollo de proyectos de Educación para la Transformación Social (EpTS) a (H)abian, la estrategia de Educación para la**

**irizpide eta baldintza bezala sartzen jarraituta.**

(H)ABIAN 2030 Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren Euskal Estrategia da, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak bultzatu eta koordinatutako parte hartze prozesu batean sortutakoa. Estrategian hainbat erakundek parte hartzen du (Euskal Fondoa, foru aldundiak eta EAEko hiru hiriburuetako udalak), zenbait GGKE eta gizarte zibileko hainbat erakunderekin batera.

Arabako Foru Aldundiak estrategia horren aldeko apustua egin du. Estrategia horrek berekin dakartza orientazio bat eta lortu beharreko aldaketa batzuk, eta hainbat jardulek egin ditzakete horretarako ekarpenak. Gida moduan planteatzen da, euskal erakunde publikoek bat egin dezaten benetako gizarte eraldaketan lagunduko duten hezkuntza prozesuetarako ekarpena elkarrekin egiteko.

Gako da deialdian bertan (H)ABIAN 2030 ekimenak adierazitako apustua; hartara, lanean jarraitu da galdetegiak, diruz lagun daitezkeen programak eta balorazio irizpideak berrikusi eta etengabe hobetzen gizarte eraldaketako hezkuntzako deialdian. Estrategia horri dagozkion egokitzapenek benetako gizarte eraldaketa baterako bidea ematen dute, eta haiek guztiek berdintasun printzipoa jasotzen dute.

- **Lurraldean kokatutako erakundeekin batera hasitako parte hartze eta elkarrizketa prozesua sendotu eta bizkortzea.**

Sendotu egin da Eskutik Mundura parte hartze prozesuaren barruan lurraldeko eragile sozialekin batera abian jarritako parte hartzeko gunea, lankidetzarako beste politika publiko berritu eta eguneratu bat egin eta sendotzeko. Haren funtzionamenduan, mekanismoak garatu dira, zeinen bidez modu erabilgarri eta eraginkorrean parte hartu baitaiteke elkartasunaren eta lankidetzaren arloko politika formulatzeko prozesuan.

2019an, lau saio egin dira lurraldeko GGKE-ekin. Haietatik lehenengoaren xedeak erantzuten dio gardentasunari, kontuak emateari eta gizarte zibilak

**Trasformación Social, manteniendo la inclusión de la perspectiva de género como criterio y como requisito.**

(H)ABIAN 2030 es la Estrategia vasca de Educación para la Transformación Social (EpTS) elaborada en un proceso participativo impulsado y coordinado por la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo. La estrategia cuenta con la participación de diferentes instituciones públicas (Euskal Fondoa, las Diputaciones Forales y los Ayuntamientos de las tres capitales de la CAPV) junto a diversas ONGDS y otras organizaciones de la sociedad civil.

La Diputación Foral de Álava apuesta por esta Estrategia que conlleva una orientación y cambios a lograr, a los que pueden aportar actores diversos. Ésta se plantea como una guía para que las instituciones públicas vascas se sumen a aportar conjuntamente a procesos educativos que contribuyan realmente a una transformación social.

Es clave la apuesta reflejada en la propia convocatoria por (H)ABIAN 2030, así, se ha continuado con la revisión y adecuación continua de los formularios, los programas subvencionables y los criterios de valoración de la convocatoria de Educación para la Transformación Social. Las adecuaciones realizadas pertinentes a la citada estrategia contribuyen a una transformación social real, incorporando en todas ellas el principio de igualdad.

- **Consolidar y dinamizar el proceso de participación y diálogo emprendido con las organizaciones implantadas en el territorio.**

Se ha consolidado el espacio de participación iniciado con los agentes sociales del territorio dentro del proceso participativo Eskutik Mundura con el objetivo de repensar y fortalecer una política pública de cooperación diferente, renovada, y actualizada. En el funcionamiento del mismo, se han afianzado los mecanismos que permiten la participación útil y efectiva en el proceso de formulación de la política de solidaridad y cooperación.

En el año 2019 se han realizado cuatro sesiones con las ONGD del Territorio. El objetivo de la primera de ellas responde a lo que la Diputación Foral de

funts publikoak kudeatzean parte hartzeari dagokionez Arabako Foru Aldundiak bere gain hartzen duenari. Han, egindako lanaren memoria, aurrekontu gauzatua eta lankidetza arloan etorkizunean izango den lanaren aurreikuspena jasotzen dira.

Gainera, GGKE-en baliabide taldearekin egin diren lan lantegiek oinarri izan dute eremu estrategiko berriei buruz eztabaidatu eta haiek definitzeko prozesu bat lantzea. Eremu horiek lan gune izango dira askotariko eragileentzat, giza garapen jasangarriaren erronka global jakin batzuk aztertzeko. Lan horren eta eremu estrategikoak modu partekatuan identifikatzeko emaniko pausoen xedea da Arabako Foru Aldundiaren lankidetzako politika publikoan txertatu ahal izatea.

- **Lankidetzaren arloko foru politikan parte hartzen duten eragileak, baliabideak eta erakundeak berrikustea**

Bereziki Arabako GGKE-ekin lan egiten jarraitu da, gaur egungo baliabideak berrikusteko eta lankidetza lanean eragile berriak gehitzeko. Horren ondorioz, eremu estrategioetako lana definitzen hasi da.

2019an zehar, talde horrekin eginiko bi saioen helburua izan da batetik, garapenerako lankidetzako indarreko kasuan kasuko deialdien eta urte anitzeko deialdien jarraipena eta balorazioa egitea. Bestetik, eta modu zabalago batean, lan egin dugu baliabide berri bat definitzean, zeinak balioko baitu erantzuteko garapenaren lankidetzan planteatzen diren erronka berriei. Hau da, eremu estrategikoak bilatu eta definitzean lan egin dugu, zeinak lan gune izango baitira askotariko eragileentzat, giza garapen jasangarriaren erronka global jakin batzuk aztertzeko.

Hala, saio horietako ondorio nagusia izan da premia dagoela zehazteko esparru estrategikoak lantzean zentratutako beste baliabide bat, eta horretarako definitu egin beharko litzateke nolako estrategiei buruz ari garen, nola abiarazi beharko liratekeen edo zein eragile gehitu beharko liratekeen. Halaber,



Álava asume en torno a la transparencia, rendición de cuentas y la participación de la sociedad civil en la gestión de los fondos públicos. En la misma se presenta la memoria del trabajo realizado así como el presupuesto ejecutado y la previsión de trabajo a futuro en materia de cooperación.

Además, los talleres de trabajo con el grupo de instrumentos de las ONGD, se han centrado en abordar un proceso de debate y definición de nuevos ámbitos estratégicos, concebidos como espacios de trabajo entre agentes diversos en torno a algunos de los retos globales del desarrollo humano sostenible. El fin de este trabajo realizado y los pasos dados para la identificación compartida de los ámbitos estratégicos es que se puedan incorporar a la política pública de cooperación de la Diputación Foral de Álava.

- **Revisión de los agentes, instrumentos y organizaciones implicadas en la política foral de cooperación.**

Se ha seguido trabajando especialmente con el grupo de trabajo de ONGD alavesas con el fin de hacer una revisión de los instrumentos actuales así como de la incorporación de nuevos agentes al trabajo de la cooperación. Como consecuencia del mismo, se ha comenzado un trabajo de definición de trabajo en ámbitos estratégicos.

Las dos sesiones realizadas con este grupo a lo largo del año 2019, se han centrado, por un lado, en realizar un seguimiento y valoración de las convocatorias de cooperación al desarrollo de carácter puntual y plurianual en vigor. Por otro, y de forma más extensa, se ha trabajado en el objetivo de definir un nuevo instrumento que responda a los nuevos retos que se plantean en la cooperación al desarrollo. Esto es, trabajar en la búsqueda y definición de ámbitos estratégicos, concebidos como espacios de trabajo entre agentes diversos en torno a algunos de los retos globales del desarrollo humano sostenible.

Así, el acuerdo principal tomado en estas sesiones ha sido la necesidad de concretar un nuevo instrumento centrado en trabajo en ámbitos estratégicos, definiendo de qué tipo de estrategias estamos hablando, cómo ponerlas en marcha y a qué agentes

proposamen hori zehaztu ondoren, esperientzia pilotu bat abiarazi beharko litzateke.

- **Garapenerako politiken koherentzia (GPK) hobetzen jarraitzea, berdintasun printzipioa erantsita.**

1. Laia Eskola- Arabako emakumeen jabekuntzarako eta berdintasunerako eskola. Elkartasun ildoa

Zerbitzuak berdintasun, lankidetza eta kultuartekotasun arloak barne hartzen dituenez, ikuspuntu estrategikoa eta intersekzionala aplika daiteke proiektu gakoak abiaraztean, eskubideen ikuspegiarekin jabekuntza prozesuen ekimen komunak partekatzeko baliagarriak izango direnak.

2019an, ekimen hauek egin dira lankidetza arloak lagunduta:

* “Genero indarkeriaren aurkako borrokan gazteak tinko” proiektua (Araba eta Ipar Chinandega - Nikaragua). Zerbitzuko garapenerako lankidetzarako deialdiaren bidez finantzatutako proiektu baten bidez identifikatua. Ekimen honekin lan espazio komunak sortu nahi dira Arabako eta Nikaraguako gazteen artean indarkeriaren gaiaren inguruan.

  Urte horretan zehar, Urrunagako gazte talde batekin lan egin da. Hiru (3) lantegi egin dira, haietatik bat prestakuntzakoa, Urrunagako jendearekin baino ez. Idarkeria matxistei buruzko esperientziak trukatzeko hurrengo beste bi saioak Nikaraguako “Ipar Chinandegako gazteen sarea”ren bi ordezkarirekin batera egin dira. Gainera, esperientzia jasotzen duen lekukotasun bideo bat egin da.

* SETEM Hegohaizea erakundearekin lankidetzan, lurraldeko sei kuadrilletan eta Trebiñuko enklabean "Fabricando mujeres" dokumentala proiektatu zen, kontsumo kritikoaren eredu arduratsu eta eraldatzailea eta indarkeriarik gabeko gizarte ekonomia solidarioa eraikitzen jarraitzeko.

* 44 EUCOCO. Saharar herriarekiko Laguntza eta



incorporar. Así mismo, realizar una experiencia piloto una vez concretada dicha propuesta.

- **Continuar trabajando la Coherencia de Políticas para el Desarrollo (CPD) como un proceso de mejora, incorporando el principio de igualdad.**

1. Laia Eskola- escuela para la igualdad y el empoderamiento de las mujeres de Álava. Línea de solidaridad

El hecho de que el Servicio engloba las áreas de Igualdad, Cooperación e interculturalidad, permite aplicar una mirada estratégica e interseccional en la puesta en marcha de proyectos clave que sirvan para compartir iniciativas comunes de procesos de empoderamiento y con enfoque de derechos.

En el año 2019, se han desarrollado las siguientes iniciativas apoyadas desde el área de Cooperación:

* El proyecto “Jóvenes persistentes ante la lucha contra la violencia de género (Álava y Chinandega Norte-Nicaragua). Identificado a través de un proyecto financiado en la convocatoria de cooperación al desarrollo del Servicio. Con esta iniciativa se pretende generar espacios de trabajo comunes entre jóvenes alaveses y nicaragüenses en torno al tema de la violencia.

  A lo largo de este año se ha trabajado con un grupo de jóvenes del municipio de Urrunaga. Se han realizado 3 talleres, uno de ellos de preparación, únicamente con las personas de Urrunaga. Las siguientes dos sesiones de intercambio de experiencias respecto a las violencias machistas, se han realizado junto con dos personas representantes de la “Red de jóvenes de Chinandega Norte” de Nicaragua. Además, se ha realizado un video testimonial recogiendo la experiencia.

* En colaboración con SETEM Hegohaizea se proyectó en las seis cuadrillas del territorio y Enclave de Treviño el documental “Fabricando mujeres” con el objeto de seguir construyendo un modelo de Consumo Crítico Responsable y Transformador y Economía Social Solidaria libre de violencias.

* 44 EUCOCO. Conferencia Europea de Apoyo y

Elkartasunerako Europako Konferentzia. Gasteizen azaroan egin zen hitzaldi honen esparruan, bilera bat egin zen saharar emakumeekin. Arabako Lurralde Historikoko gizarte erakundeetako emakumeentzat zen bilera hori. Gainera, giza eskubideen aldeko emakume saharar aktibista garrantzitsu batzuk parte hartu zuten.

2. Arabako Foru Aldundiaren parte hartze esparruan, Eusko Jaurlaritzako Lankidetzaren Euskal Kontseiluan eta Erakundearteko Batzordean zein Euskal Fondoko Zuzendaritza Batzordean, 2019an erakunde artean esku hartzeko hainbat proposamen finkatu dira:

* Zenbait euskal erakunderen arteko lankidetza ekimen bateratua, Erdialdeko Amerikan, saneamendu eta ur arloan.

Lankidetza ekimen triangeluarra da, Euskadi, Costa Rica eta El Salvadorreko erakundeen artekoa; lankidetza esparruko erakunde publikoak zein ur operadoreak ere inplikatuta daude, programa ez baita soilik laguntza finantzarioa ematea; aitzitik, lankidetza teknikoko osagai garrantzitsua ere izango du.

2019an, II. fasea gauzatzen jarraitu da:

* Euskal Lankidetza Publikoaren Ataria

Euskal Lankidetza Publikoaren Ataria mantentzearekin eta hobetzearekin zerikusia duen lanarekin jarraitzea. Plataforma horrek euskal erakunde publikoen garapenerako lankidetzako jarduerak jasotzen ditu. Atari hori euskal erakunde publiko guztien garapenerako lankidetza politikari buruzko informazioa bateratzeko eta sistematizatzeko lan prozesu baten emaitza da, eta parametro komun batzuk ditu. Ekimena lagungarria da euskal lankidetzaren informazio sistemak hobetzeko, egindako jarduerei buruzko informazioa harmonizatzeko, kontuak emateko, ikerketa eta analisiak errazteko eta erakundeen arteko koordinazioa sustatzeko.



Solidaridad con el pueblo saharaui. En el marco de esta conferencia celebrada en Vitoria-Gasteiz en el mes de noviembre, se realizó un encuentro con mujeres saharauis. Este encuentro estaba dirigido a mujeres pertenecientes a organizaciones sociales del Territorio Histórico de Álava. Además, en dicho evento se contó con la participación de destacadas activistas saharauis por los derechos humanos.

2. En el marco de la participación de la Diputación Foral de Álava, tanto en la Comisión Interinstitucional y en el Consejo Vasco de Cooperación del Gobierno Vasco, como en la Junta Directiva de Euskal Fondoa, a lo largo de 2019 se han consolidado diferentes propuestas de intervención interinstitucional:

* Iniciativa conjunta de cooperación entre varias instituciones vascas en materia de agua y saneamiento en Centroamérica.

Se trata de una iniciativa de cooperación triangular entre entidades de Euskadi, Costa Rica y El Salvador, que implica tanto a instituciones públicas del ámbito de la cooperación como a operadoras de agua, dado que el programa no sólo se centrará en un apoyo financiero, sino que también tendrá un componente importante de cooperación técnica.

En el año 2019 se ha continuado con la ejecución de la II fase.

*Portal de la Cooperación Pública Vasca

Continuación del trabajo que tiene que ver con el mantenimiento y la mejora del Portal de la Cooperación Pública Vasca, plataforma que recoge las actuaciones de Cooperación para el Desarrollo de las entidades públicas vascas. Dicho portal es resultado de un proceso de trabajo de puesta en común y sistematización de la información sobre la política de cooperación al desarrollo de todas las entidades públicas vascas, con unos parámetros comunes. Esta iniciativa contribuye a mejorar los sistemas de información de la cooperación vasca, armonizar la información sobre las actividades realizadas, rendir cuentas, facilitar los análisis e investigación, y promover la coordinación

interinstitucional.

- **Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzako, garapenaren lakidetzarako eta ekintza humanitarioaren arloko proiektuei laguntzea eta haietan genero ikuspegia eranstea.**

Ildo horrek barruan hartzen ditu, alde batetik, irabazteko xederik gabeko erakundeentzako laguntzak, Arabako Lurralde Historikoko irabazteko xederik gabeko erakundeek finantzatu ditzaten garapen bidean dauden herrialdeetan garapenerako lankidetzaren arloko proiektuak eta Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzako proiektuak.

Halaber, barruan hartzen du Larrialdietarako Arabako Funtsa (LAF), hau da, garatzen ari diren herrialdeei eragiten dieten larrialdi egoeretan, esku hartzeko gaitasuna duten erakundeei laguntza ekonomiko azkarra emanez, laguntza eskaintzea ahalbidetzen duen mekanismo bat.

Finantzatzen diren proiektu guztietan baldintza izan da genero ikuspegia sartzea, garapenerako edozein ekimen, generoari dagokionez, neutrala ez delakoan eta genero desberdintasunek garapenari lotutako arazo askoren, hala nola txirotasunaren feminizazioaren, emakumeen aurkako egiturazko indarkeriaren, haien giza eskubideen urraketaren, eta abarren sorburua direlakoan.

Urte anitzeko garapenerako lankidetza deialdiari dagokionez, Kolonbian, Nikaraguan, Perun, Boli Kostan, Burundin, Guatemalan, Hondurasen eta El Salvadorren onetsitako proiektuen bigarren urtea garatu da 2019an.

Bestalde, garapenerako lankidetza deialdi puntualean zortzi proiektu onetsi ziren, zeinen ekintzak Guinea Konakry, Nikaragua, Kolonbia, Nigeria, Mendebaldeko Sahara, Ruanda eta Kongoko Errepublika Demokratikoan garatzen baitira.

Irabazteko xederik gabeko entitateei gizartea nazioarteko elkartasunaren alde Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzako proiektuko genero ikuspegidun ekintzak egiteko ematen zaizkien laguntzen deialdiak elkartasunezko konpromiso

- **Apoyo a proyectos de EpTS, cooperación al desarrollo y acción humanitaria, incorporando en los mismos la perspectiva de género.**

Esta línea se refiere, por un lado, a las ayudas dirigidas a entidades sin ánimo de lucro para la financiación de proyectos de cooperación al desarrollo en países en vías de desarrollo y EpTS, por entidades sin ánimo de lucro del Territorio Histórico de Álava.

Así mismo, incluye el Fondo Alavés de Emergencia (FAE), como un mecanismo que permite brindar ayuda en situaciones de emergencia que afecten a países en desarrollo, mediante el ágil apoyo económico a entidades con capacidad de intervención.

En todos los proyectos financiados se considera como requisito la incorporación de la perspectiva de género, partiendo de que cualquier iniciativa de desarrollo no es neutral en términos de género y de que las desigualdades de género son origen de muchas de las problemáticas ligadas al desarrollo, tales como la feminización de la pobreza, la violencia estructural contra las mujeres o la violación de sus derechos humanos.

En lo que se refiere a la convocatoria de Cooperación al Desarrollo de carácter plurianual, en el año 2017, en el año 2019 se ha ejecutado el segundo año de los proyectos aprobados en Colombia, Nicaragua, Perú, Costa de Marfil, Burundi, Guatemala, Honduras y El Salvador.

Por su parte, en la convocatoria de Cooperación al Desarrollo de carácter puntual, se aprobaron ocho proyectos cuyas acciones se desarrollan en Guinea Konakry, Nicaragua, Colombia, Nigeria, Sahara Occidental, Ruanda y República Democrática del Congo.

La convocatoria de ayudas dirigidas a entidades sin ánimo de lucro para la ejecución de acciones de EpTS a favor de la solidaridad internacional con perspectiva de género promueve actitudes de compromiso solidario entre la ciudadanía alavesa.

# 2019RA LUZATUTAKO 2018KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 02 DIPUTATU NAGUSIA

**Programa:** 93 GARAPENERAKO LANKIDETZA

jarrerak sustatzen ditu arabarren artean.

ialdi horren esparruan, hamar proiektu onetsi dira; proiektuek landutako alderdien artean, hauexek aipatu behar dira: 2030 Agenda edo 17 GJHak aplikatzea, genero indarkeria, giza eskubideak kontsumo kritiko eta arduratsua, bizitza jasangarria edo klima aldaketa.

Gainera, 2019an zehar, krisi humanitario larriek jotako sei herrialdetan LAFen bitartez bederatzi esku hartze humanitario egitea onetsi da. Hain zuzen ere, esku hartzeak Ginea Errepublikan, Kamerunen, Mozambiken, Ruandan, Bolivian eta Sirian egin dira.

Bestalde, zuzeneko lankidetza hauxe da: Arabako Foru Aldundiko sailek edo erakundeek garapenerako lankidetzaren esparruan sustatzen dituzten ekintzak.

2019an, lan ildo berari eutsiz, mantendu egin dira hainbat esku hartze: Gambian, emakumeen genitalen mutilazioaren prebentzioan aurrera egiteko; Brasilen, emakumeen ahalduntzearen eta basoberritzearen aldeko ekintzak egiteko; Indian, azken urtean, egoera behartsuenean dauden neskatoen hezkuntza sustatzeko; EAEn, lankidetza proiektuak bultzatzeko UPV/EHUrekin batera; eta Togon, neskato-mutikoen trafikoaren eta haienganako sexu abusuen kontrako borrokan.

Bestalde, hitzarmenen atalean urtero sinatutako bost hitzarmenak luzatu egin dira, hain zuzen ere honako erakunde hauekin sinatutakoak: Euskadiko GGKE-en Koordinakundea, AFANIS haur sahararren harrera familien elkartea, Euskal Fondoa, Familia Sakratua Elkartea eta SEADen lagunen Elkartea.

Hitzarmen horiek xedetzat dute GGKEKren Arabako Ordezkaritza mantentzea eta haren funtzionamendua hobetzea, Saharako umeei harrera egitea, Guatemalako landa komunitateen integrazioaren bitartez pobrezia murrizteko borrokatzea, Txernobylgo umeei harrera egitea eta Tindufeko (Aljeria) kanpamentuetako errefuxiatu sahararren ongizatea, hurrenez hurren.

# LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2018 PRORROGADO PARA 2019

**Departamento:** 02 DIPUTADO GENERAL

**Programa:** 93 COOPERACIÓN AL DESARROLLO

el marco de esta convocatoria, se han aprobado diez proyectos, los cuales abarcan aspectos como la aplicación de la Agenda 2030 y los 17 ODS, violencia de género, derechos humanos, el consumo crítico y responsable, vidas sostenibles o el cambio climático.

Asimismo, a lo largo del año 2019, se han aprobado nueve intervenciones humanitarias en seis países afectados por graves crisis humanitarias a través del FAE. Los países en los que se ha intervenido han sido República de Guinea, Camerún, Mozambique, Ruanda, Bolivia y Siria.

Por otro lado, la cooperación directa se entiende como aquellas acciones de Cooperación para el Desarrollo, promovidas por alguno o algunos de los distintos departamentos u organismos de la Diputación Foral de Álava.

El año 2019 se ha continuado el trabajo en esta línea de manera que se han mantenido las intervenciones en Gambia, en el avance del trabajo de la lucha por la prevención de la Mutilación Genital Femenina; Brasil, con acciones que apoyan el empoderamiento de las mujeres y la reforestación; India, en su último año, de apoyo a la educación de las niñas que se encuentran en situaciones más desfavorecidas; CAV, para impulsar proyectos de cooperación junto a la UPV y Togo, en la lucha contra el abuso sexual y la trata de niños y niñas.

Por su parte, en lo que a Convenios se refiere, se han prorrogado los cinco firmados anualmente con las siguientes entidades: Coordinadora de ONGDs de Euskadi, Asociación de familias de acogida de niños y niñas saharauis AFANIS, Euskal Fondoa, Asociación Sagrada Familia y la Asociación de Amigas y Amigos de la RASD.

Dichos convenios tienen por objeto el mantenimiento y la mejora del funcionamiento de la Delegación de Álava de la CONGD, la acogida de niñas y niños saharauis, la lucha por la reducción de la pobreza a través de la integración de comunidades rurales en Guatemala, la acogida de niñas y niños de Chernobil y el bienestar de la población saharaui refugiada en los campamentos de Tinduf (Argelia), respectivamente.

## 2019RA LUZATUTAKO 2018KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 02 DIPUTATU NAGUSIA

**Programa:** 93 GARAPENERAKO LANKIDETZA

- **Lankidetzarako eta/edo sentsibilizaziorako proiektuen jarraipena eta ebaluazioa egitea**

  Irabazteko xederik gabeko erakundeen bidez garapen bidean dauden herrialdeetan garapenerako lankidetza proiektuak, urte anitzekoak, finantzatzeko deialdia onesten duen deialdian jasotzen denez, diruz lagundutako erakundeak, egokitzen den urterokoa jaso eta sei hilabete igaro ondoren, bilera bat egin beharko du Berdintasun, Lankidetza eta Kulturartekotasun Zerbitzuarekin, haren jarraipena egiteko. Ildo horretatik, dagokien segimendua egin zaie deialdi horren bidez diruz lagundutako proiektuak ezartzen ari diren hamar erakundeei.

  Irabazteko xederik gabeko erakundeei laguntzak ematen zaizkie, genero ikuspegia aintzat hartuta Eraldaketarako Hezkuntzako proiektuen ekintzak gauzatzeko. Bada, laguntza horien deialdiaren barruan, jarraipenerako bilerak egiten dira erakunde onuradunekin, proiektuak gauzatu ahala, eta garatzen diren jardueren arabera.

  Larrialdietarako Arabako Funtsaren (LAF) esparruan gauzatzen diren proiektuen kasuan, hitzarmen arautzailean bertan aurreikusita dagoen batzorde teknikoak berrikusten ditu aurkezten diren txostenak. Batzorde horretako kideak Arabako Foru Aldundiko eta Gasteizko Udaleko teknikariak dira.

  Zuzeneko lankidetzako esku hartzeei dagokienez, proiektuetan ezarritako orientabide eta ekintzen jarraipena eta balorazioa egin da, bai eta haiek birformulatu ere; gainera, erakundeek aurkeztutako txostenen bidezko jarraipena egin da.

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2018 PRORROGADO PARA 2019

**Departamento:** 02 DIPUTADO GENERAL

**Programa:** 93 COOPERACIÓN AL DESARROLLO

- **Seguimiento y evaluación de los proyectos de cooperación y/o sensibilización.**

  Como se recoge en la convocatoria que aprueba la convocatoria para la financiación de proyectos de cooperación al desarrollo en países en vías de desarrollo de carácter plurianual a través de entidades sin ánimo de lucro, la entidad subvencionada, transcurridos seis meses del ingreso de la anualidad correspondiente, deberá mantener una reunión con el Servicio de Igualdad, Cooperación e Interculturalidad con el fin de efectuar el seguimiento del mismo. En este sentido, se ha realizado el seguimiento correspondiente con las diez entidades que están implementando sus proyectos subvencionados a través de esta convocatoria.

  En el marco de la convocatoria de ayudas dirigidas a entidades sin ánimo de lucro para la ejecución de acciones de EpTS con perspectiva de género se mantienen reuniones de seguimiento con las entidades beneficiarias a medida que los proyectos se ejecutan y en función de las actividades que se implementan.

  En el caso de los proyectos ejecutados en el marco del Fondo Alavés de Emergencias (FAE), los informes presentados son revisados por la Comisión Técnica prevista en el propio Convenio regulador y que abarca tanto al personal técnico de la Diputación Foral de Álava como del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz.

  En relación a las intervenciones de cooperación directa, se mantienen reuniones de seguimiento, valoración y reformulación de las orientaciones y acciones implementadas en los diversos proyectos, así como el seguimiento a través de los informes presentados por las entidades.